PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

«IVAPen argitalpenak editatzeko eta inprimatzeko zerbitzua» (01/IVAP/2021)

AURKIBIDEA

1. LEHIAKETAREN XEDEA

2. SORTAK ETA SORTA BAKOITZARI DAGOZKION PRESTAZIOAK

3. LIZITATZAILE BERA ZENBAT SORTATARA AURKEZTU DAITEKEEN

4. ZENBAT ALE INPRIMATU ETA AZALEZTATU BEHAR DIREN

5. BIDAIA- ETA GARRAIO-KOSTUAK

6. ZERBITZUEN ZEHAZTAPEN PARTIKULARRAK ETA PREZIOAK

7. ATAZA BAKOITZAREN BETEARAZPEN- ETA ENTREGA-EPEAK

8. BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA
ZERBITZUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUARENA, ZEINAREN XEDEA BAITA «IVAP-EN ARGITALPENEN EDIZIOAREN ZERBITZUA» (2021)

1. LEHIAKETAREN XEDEA

IVAPek editaturiko argitalpenen fotokonposizio- eta fotomekanika-lanak egitea, baita inprimatze- eta azaleztatze-lanak ere. Argitalpen horiek paper-euskarrian ez ezik beste euskarri batzuetan ere eskuratu ahalko dira.

Orobat, lehiaketa honen xedea izango da datu-baseetan edo datu irekien argitalpenetan (Open Data) sartzea ahalbidetzen duten programa eta sistemetan ematea argitalpenok, bai eta *e-book* eta antzekoen bidez irakurtzeko eta baliatzeko modukoetan ere.

Lan horiei guztiei dagozkien prestazioak IVAPen argitalpenen eskuliburuaren arabera egingo dira. Eskuliburu horretan dago zehazturik IVAPen argitalpenen estiloa, eta lizitatzaileei bidaliko zaie, lehiaketako proben enuntziatuekin batera.

2. SORTAK ETA SORTA BAKOITZARI DAGOZKION PRESTAZIOAK

Kontratu hau sortatan banaturik dago. Preskripzio teknikoen agiri honen 1. apartatuan deskribaturiko lanez gainera, sorta horietako bakoitzean honako zeregin hauek gauzatu beharko dira:

1. SORTA: ***ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ* ALDIZKARIA**
• Aldizkariaren aleak maketatzea eta inprimatzea (ohiko zenbakiak eta Solasaldiak). • Urteko egutegia diseinatzea, maketatzea eta inprimatzea. • Aldizkariaren edukietarako agintzen diren diseinuak egitea. • Probak IVAPi bidaltzea, zuzen ditzan, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea argitalpenean. • Aldizkariaren azalak diseinatzea, IVAPi diseinu-proposamena bidaltzea, egindako diseinuari oniritzia eman diezaion IVAPek, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea. • IVAPi aurreinprimaketako pdf fitxategia edo, hala badagokio, edizioa egiteko erabilitako azken dokumentu digitala bidaltzea. • Aldizkariaren zenbakia pdf eta xml formatuan ipintzea, edo behar diren antzeko sistemetan. • IVAPi eta banaketaz arduratzen den enpresari behar diren aleak helaraztea.

2. SORTA:

- ***HERRI ARDURALARITZAZKO EUSKAL ALDIZKARIA*** **(RVAP) ETA**
- ***PERTSONAK ETA ANTOLAKUNDE PUBLIKOAK KUDEATZEKO EUSKAL ALDIZKARIA*** **(RVOP)**

- Sorta honetan, dagoeneko finkatuta dauden tipografia- eta maketazio-ezaugarriak dituzten aldizkako bi argitalpen biltzen dira.
- Aldizkariaren aleak maketatzea (normalak edo bereziak izan daitezke) eta inprimatzea.
- Behar diren diseinuak egitea (ohikoagoa da RVOP aldizkarian).
- Probak IVAPi bidaltzea, zuzen ditzan, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea argitalpenean.
- Aldizkariaren azalak diseinatzea, IVAPi diseinu-proposamena bidaltzea, egindako diseinuari oniritzia eman diezaion IVAPek, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea.
- Behar diren estekek funtzionatzen dutela egiaztatzea, DOIari dagozkionak barne.
- Behar diren separatak egitea.
- IVAPi aurreinprimaketako pdf fitxategia edo, hala badagokio, edizioa egiteko erabilitako azken dokumentu digitala bidaltzea. Prozesu berari jarraituko zaio aldizkariaren zenbaki (nabigagarria izango da) eta artikulu bakoitzeko.
- Aldizkariaren zenbakia pdf eta xml, e-pub eta html formatuetan ipintzea, edo behar diren antzeko sistemetan.
- IVAPi behar diren aleak bidaltzea.

3. SORTA:
MAKETATZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN MONOGRAFIAK ETA BESTE LIBURU BATZUK

- Liburuak maketatzea eta inprimatzea.
- Hainbat egile dituzten liburuetan, eskatzen diren estilo eta baliabideak homogeneizatzea (aipuak, tipografiak, aurkibideak...).
- Aldian-aldian behar diren diseinuak egitea.
- Probak IVAPi bidaltzea, zuzen ditzan, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea argitalpenean.
- Liburuaren azalak diseinatzea, IVAPi diseinu-proposamena bidaltzea, egindako diseinuari oniritzia eman diezaion IVAPek, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea.
- Behar diren estekek funtzionatzen dutela egiaztatzea, DOIari dagozkionak barne.
- Behar diren separatak egitea.
- IVAPi aurreinprimaketako pdf fitxategia edo, hala badagokio, edizioa egiteko erabilitako azken dokumentu digitala bidaltzea. Prozesu berari jarraituko zaio aldizkariaren zenbaki (nabigagarria izango da) eta artikulu bakoitzeko.
- Argitalpena pdf eta xml, e-pub eta html formatuetan ipintzea, edo behar diren antzeko sistemetan.
- IVAPi behar diren aleak bidaltzea.

4. SORTA: BESTELAKO LIBURUAK ETA MONOGRAFIAK

- Liburuak maketatzea eta inprimatzea.
- Hainbat egile dituzten liburuetan, eskatzen diren estilo eta baliabideak homogeneizatzea (aipuak, tipografiak, aurkibideak...).
- Aldian-aldian behar diren diseinuak egitea.
- Probak IVAPi bidaltzea, zuzen ditzan, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea argitalpenean.
- Liburuaren azalak diseinatzea, IVAPi diseinu-proposamena bidaltzea, egindako diseinuari oniritzia eman diezaion IVAPek, eta IVAPek eskatzen dituen zuzenketak txertatzea.
- Behar diren estekek funtzionatzen dutela egiaztatzea, DOIari dagozkionak barne.
- Behar diren separatak egitea.
- IVAPi aurreinprimaketako pdf fitxategia edo, hala badagokio, edizioa egiteko erabilitako azken dokumentu digitala bidaltzea.
- Argitalpena pdf eta xml, e-pub eta html formatuetan ipintzea, edo behar diren antzeko sistemetan.
- IVAPi behar diren aleak bidaltzea.

3. AURREIKUSPENEN ARABERA ZENBAT ALE INPRIMATU ETA AZALEZTATU BEHAR DIREN

IVAPeko argitalpen-zerbitzuak dagokion adjudikaziodunari adieraziko dio argitalpen bakoitzean inprimatu eta azaleztatu beharreko aleen kopurua, dagokion enkargua egiten den unean.

Aurreko urteetan izandako eskaria oinarritzat hartuta, hona hemen sorta bakoitzerako aurreikuspenak:

SORTA	URTEKO ALE KOPURUA (salbuespen-kasuak izan ezik)	ALE BAKOITZEKO TIRADA
1 ***ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ* ALDIZKARIA**	*Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren 4 zenbaki (hiru hilean behin), zenbaki berezi bat eta egutegi bat.	13.000 eta 18.000 ale artean
2 ***HERRI ARDURALARITZAKO EUSKAL ALDIZKARIA* (RVAP) ETA *PERTSONAK ETA ANTOLAKUNDE PUBLIKOAK KUDEATZEKO EUSKAL ALDIZKARIA* (RVOP)**	*Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*: Urtean 3, eta baliteke aparteko zenbakiak sartzea. *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria*: Hiruhileko 2 zenbaki, eta zenbaki monografiko berezi bat	100 eta 300 ale artean
3 **MAKETATZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN MONOGRAFIAK ETA BESTE LIBURU BATZUK**	Aldakorra (ikus erantsitako taula hurrengo paragrafoan)	Ohiko tirada: 100 eta 500 ale artean Salbuespen-kasuetan, tirada handiagoa egin daiteke; eta, oso kasu berezietan, gerta liteke tirada txikiagoa behar izatea ere.
4 **BESTELAKO LIBURUAK ETA MONOGRAFIAK**	Aldakorra (ikus erantsitako taula hurrengo paragrafoan)	Ohiko tirada: 100 eta 500 ale artean Salbuespen-kasuetan, tirada handiagoa egin daiteke; eta, oso kasu berezietan, gerta liteke tirada txikiagoa behar izatea ere.

Argitaratutako liburuen kopurua aldatu egiten da urte batzuetatik besteetara. Hona hemen hurreko urteetan argitaratutako liburuen kopurua, sortaka (haien konfigurazioa desberdina zen kontratu honetan zehaztutakoaren aldean):

	4. SORTA (maketazio-zailtasun bereziak)	5. SORTA (maketazio-zailtasun berezirik gabe)	3. SORTA: HIRIGINTZA (maketazio-zailtasun bereziak zituzten liburuak eta halakorik gabeak barnean hartuta)
2017	4	12	2
2018	4	6	2
2019	4	5	1
2020	2	3	------

Hala ere, apartatu honetan emandako datuek ez dute behartzen administrazioa kopuru jakin bat eskuratzera; izan ere, kontratu honetan sartutako prestazioen guztizko kopurua ez dago zehatz-mehatz definiturik kontratua egiteko garaian, administrazioaren beharren mende baitaude prestazio horiek.

4. BIDAIA- ETA GARRAIO-KOSTUAK

Lizitatzaileek eskainitako prezioetan, bidaiek eta garraioek eragindako kostuak sartuko dira (jatorrizkoak jasotzea eta entregatzea, bigarren probak entregatzea eta jasotzea, zianoak bidaltzea eta liburuak entregatzea).

Azkenean argitaratutako produktua (liburua edo aldizkaria) emateko toki fisikoa IVAPen Oñatiko egoitza izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Kontratuan zehar eta oro har materiala jasotzeko eta entregatzeko leku horren ordez besteren bat zehaztu beharra izanez gero; edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoan egongo da bigarren toki hori ere.
b) Une jakin batzuetan eta salbuespen modura, material ukigarria jasotzeko eta entregatzeko toki gisa IVAPek Donostian, Gasteizen eta Bilbon dituen egoitzak definituz gero, edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste lekuren batean duen egoitza definituz gero, edo
c) 1. sortako aldizkariak entregatzea, non kaxa bat bidaliko baita (75 ale) IVAPen Gasteizko egoitzara, eta gainerako tirada, berriz, enpresa banatzailearen dagokion helbidera bidali beharko da.

Enpresa kontratistak argitalpena argitaratu bitartean jaso eta bidali behar dituen probak eta gainerako materialak elektronikoki jaso eta entregatuko dira, kasu hauetan izan ezik:

a) Salbuespenezko kasuren batean, jatorrizkoak eta paperean egindako proben zuzenketak bidali beharko balira.
b) 2., 3. eta 4. sortetako argitalpenei dagozkien zianoen kasuan, zeinak paperean bidaliko baitira IVAPen Oñatiko egoitzara.

Liburuak % 100 birziklatutako kartoizko kaxetan entregatuko dira; kaxa horiek neurri normalizatua edukiko dute, eta 20 kilogramoz azpikoak izango dira. Hori egiaztatzeko, eska liteke kaxen fitxa teknikoa edo fabrikatzailearen adierazpena aurkeztea; horietan, kaxen kartoi birziklatuaren ehunekoa zehaztu beharko da.

6. ZERBITZUEN ZEHAZTAPEN PARTIKULARRAK ETA PREZIOAK

6.1. Fotokonposizioa eta fotomekanika:

6.1.1. Konposizioa

Eskaintza ekonomikoetan eta karaktereak zenbatzeko orduan, ikusteko moduan ageri direnak bakarrik hartuko dira kontuan, lerroen arteko tarteak barnean harturik. Lerroak osotzat joko dira.

Lerroen zenbaketan ez dira kontuan hartuko zenbakitzea, goiburuak eta paragrafoen arteko zuriuneak.

Eskainitako prezioek ez dute alderik izango testua gaztelaniaz, euskaraz edo Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuetan dagoen.

Konposizioaren tratamenduan, bilduta dago enpresak erabilitako sistemara aldatzea, jatorrizkoa modu digitalizatuan entregatuta egoteagatik beharrezkoa den kasuetan.

Era berean, eskainitako prezioetan sartuko da zer estilotan egin behar diren, behar diren aldaketa guztiak ere aintzakotzat harturik.

Berriro tekleatzea edo testua ezabatzea eskatzen dutenak bakarrik hartuko dira egile-zuzenketatzat.

6.1.2. Doikuntza

Ez dira zenbatuko orri zuriak.

Irudi, grafiko edo taula bakarra duten orriak oinarrizko testu-orri gisa zenbatuko dira.

6.1.3. Egile-zuzenketak

Testuari dagokionez, lerroaren zuzenketa osoa hartuko da gutxieneko unitatetzat.

Paragrafo-estiloei dagozkien zuzenketak lerro gisa zenbatuko dira zuzendutako paragrafo bakoitzeko.

Orrialdea doitzeko zuzenketak kontuan hartuko dira testuaren zuzenketak aldaketa ekarri duenean, dela lerroak eta paragrafoak gehitu edo murriztu direlako, dela lerroartea, paragrafoen tarteak edo antzekoak aldatu direlako.

6.1.4. Gehikuntzak

IVAPen argitalpenen ezaugarriak direla eta, ez da aurreikusten gehikuntzarik bibliografiagatik edo zeinu matematikoak txertatzeagatik.

6.2. Inprimatzea eta azaleztatzea

6.2.1. Inprimatzea

Barnealdeak inprimatzeko prezioa dagokion formatuaren pleguaren alde bakoitzerako izango da. Liburuaren pleguaren bat ez bada osoa, dagokion proportzioan zenbatuko da inprimaketaren eta paperaren prezioa.

6.2.2. Azaleztatzea

Altxatze- eta joste-unitatea 16 orrialdeko koadernotxoa izango da, eta, zenbakitze txikiagoko plegurik izanez gero, 16 orrialdeko plegutzat hartuko dira.

6.2.3. Akaberak

Ez da erabiliko plastifikaziorik, ezta olio mineralezko oinarria edo disolbatzaileak dituen bernizik ere. Azala babestu behar bada, ur-oinarriko bernizarekin egingo da.

6.3. Paperaren eta tinten ingurumen-kalitatea

IVAPen argitalpenak inprimatzeko erabiliko den papera %100 zuntz birziklatutatik eratorritako papera izango da, eta horietatik gutxienez %65 kontsumo osteko zuntz birziklatuak izango dira. Papera zuritzeko prozesuak ez du klororik izango (PCF, *process chlorine free*; edo TCF, *totally chlorine free*). Aingeru Urdinarekin ziurtatutako paperek bermatzen dute betetzen direla irizpide horiek. Hori egiaztatzeko, IVAPek paperaren fitxa teknikoa, fabrikatzailearen adierazpena edo lehen aipatutako ekoetiketaren ziurtagiria eskatu ahal izango ditu.

Oinarrizko tintek ez dute izango metal astunik (kadmioa, merkurioa, beruna eta kromo hexabalentea) 100ppm-tik gorako kontzentrazioan, eta ez da erabiliko tinta metalizatu edo fosforeszenterik. Hori egiaztatzeko, IVAPek erabilitako tinten segurtasun-fitxak eskatu ahal izango ditu.

7. ATAZA BAKOITZAREN BETEARAZPEN- ETA ENTREGA-EPEAK

7.1.- Hauek izango dira **hasierako tirada** inprimatzeko eta entregatzeko gehieneko epeak:

SOR-TA ZK.	EGITEKOA Ataza bakoitza entregatzeko epea	AZPIATAZA		Egun baliodu-nak
1	Aldizkariaren zenbaki bat egitea eta entregatzea • Maketazioa (aldizkariaren egungo ezaugarriak kontuan hartuta) • Marrazkiak egitea • Zuzenketak: 250 • Aldizkariaren zenbakia pdf eta xml formatuetan ipintzea • 15.000 ale inprimatzea Aleak banatzailearen helbidean entregatzea	a	Lehen probak entregatzea	**6**
		b	Zuzenketak eta doikuntzak	**3**
		c	Muntaketa-probak	**5**
		d	Aleak entregatzea	**12**
2	*RVAP* aldizkariaren zenbaki bat egitea: • Maketazioa (aldizkariaren egungo ezaugarriak kontuan hartuta) • Irudiak eta marrazkiak egitea edo bilatzea • Zuzenketak: Karaktere kopuruaren %30 baino gutxiago • Aldizkariaren zenbakia pdf eta xml formatuetan ipintzea • 300 ale inprimatzea Aleak IVAPi entregatzea	a	Lehen probak entregatzea	**7**
		b	Zuzenketak eta doikuntzak	**7**
		c	Muntaketa-probak	**3**
		d	Aleak entregatzea	**10**
2	*RVOP* aldizkariaren zenbaki bat egitea: • Maketazioa (aldizkariaren egungo ezaugarriak kontuan hartuta) • Irudiak eta marrazkiak egitea edo bilatzea • Zuzenketak: Karaktere kopuruaren %30 baino gutxiago • Aldizkariaren zenbakia pdf eta xml formatuetan ipintzea • 100 ale inprimatzea Aleak IVAPi entregatzea	a	Lehen probak entregatzea	**10**
			Zuzenketak eta doikuntzak	**7**
			Muntaketa-probak	**3**
			Aleak entregatzea	**10**
3	800 mila karaktereko eta 170x240 formatuko liburu bat egitea: • Offset bidezko inprimaketa (80 gramo tinta 1 +1) • Zuzenketak: Karaktere kopuruaren %30 baino gehiago • Paper-azalean edo pasta bigunean azaleztatzea: 16 orrialdeko pleguak, hariz josiak • Ekai gogorreko azala (azal sintetikoa, oihala edo bestelakoa) • Inprimaketa: 4 + 0 Aleak IVAPi entregatzea	AZAL BIGUNA	Lehen probak entregatzea	**12**
			Zuzenketak eta doikuntzak	**18**
			Muntaketa-probak	**7**
			300 ale entregatzea	**15**
		AZAL GOGORRA	Lehen probak entregatzea	**12**
			Zuzenketak eta doikuntzak	**18**
			Muntaketa-probak	**7**
			300 ale entregatzea	**20**
4	800 mila karaktereko eta 170x240 formatuko liburu bat egitea: • Offset bidezko inprimaketa (80 gramo tinta 1 +1) • Zuzenketak: Karaktere kopuruaren %30 baino gutxiago • Paper-azalean edo pasta bigunean azaleztatzea: 16 orrialdeko pleguak, hariz josiak • Ekai gogorreko azala (azal sintetikoa, oihala edo bestelakoa) • Inprimaketa: 4 + 0 Aleak IVAPi entregatzea	AZAL BIGUNA	Lehen probak entregatzea	**10**
			Zuzenketak eta doikuntzak	**15**
			Muntaketa-probak	**7**
			300 ale entregatzea	**15**
		AZAL GOGORRA	Lehen probak entregatzea	**10**
			Zuzenketak eta doikuntzak	**15**
			Muntaketa-probak	**7**
			300 ale entregatzea	**20**

Aipatutako epe partzialak IVAPek azpiataza bakoitza egiteko agintzen duenean hasiko dira zenbatzen.

7.2.- Argitalpena lehen aldiz inprimatzeko eta entregatzeko epeez gainera, epe hauek izango dira **ondorengo inprimaketa edo inprimaketa osagarriak** egiteko:

- 10 egun baliodun paper-azaleko liburuetarako;
- 20 egun baliodun azal gogorreko liburuetarako (azal sintetikoa, oihala edo bestelakoak);
- 4 egun baliodun, eskaripean 30 ale berrinprimatzeko;
- 15 egun baliodun liburuak entregatzeko, euskarri digitalean berrargitaratu behar badira.